



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2020/07/14**

### **Arabako Errioxaren egungo egoera**

Azken hiru asteetan ekaitzak egon dira, eta aldizka euria ere egin du. Temperatura altuak izan dira, eta giroko hezetasun handia. Ohikoa denez, fenomeno atmosferiko horiek ez dute eragin bera eremu guztietan. Horrela, prezipitazioen bolumena eta forma desberdinak dira baita oso hurbil dauden eremuetan ere. Euri intentsitate eta maiztasunik handienak Arabako Errioxako mendebaldeko eremuetan gertatu dira, Guardiako mendebaldean. Lapuebla-Assaren kasuan, ekainaren 25ean harriabarra egin zuen, eta kasu gehienetan berreskura daitezkeen kalteak gertatu ziren mahats-mordoetan eta landaretzan.

Ekaitzek ur kantitaterik gehien utzi duten, eta tenperatura oso altua izan den tokietan, maiatzetik Arabako Errioxako mahastiak arriskuan jartzen ari den mildiu gaixotasunak ingurumen baldintzarik onenak izan ditu garatzeko.

Une honetan mahastietako aleak ilar-tamaina du (K egoera), eta mordoia ixten ari da (L egoera). Fenologia horrek, urte arrunt baten aldean, 7 eta 10 egun arteko aurrerapena ekartzen du Arabako Errioxako hego-ekialdean kokatuta dauden eta harriabarrak kaltetu ez dituen mahastietan. Ekainaren 16 eta 25eko txingor-zaparraden kalteak eta horiek eragindako hosto-galtzeak izan dituzten mahastiak behar baino atzeratuago daude, hostoak galdu dituztenez, etenaldi begetatiboa izan dutelako.

Orain, ekainaren 16an Navaridas-Eskuernaga eta Bastida inguruan gertatutako harriabarraren eraginak ebaluatzeko moduan gaude dagoeneko. Hautematen ditugun eragin nagusiak mildiu gaixotasunaren infekzioekin lotuta daude. Infekzio horiek, harriabarraren kalte mekanikoen ondorioz gertatu dira. Horrela, Navaridasen eremuan, zenbait mahastik, harriabarraren ondorioz mahats-mordo ugari galdu badituzte ere, bizirik jarraitu dutenei tratamendu egokia egin zaie, eta gaur egun, zauriak orbaintzen ari dira. Beraz, badirudi mahats-bilketara helduko direla. Kalte txikiagoak dituzten beste mahasti batzuei ez zaie hainbesteko arreta jarri, edo tratamenduak ez dira hain eraginkorrak izan. Horrenbestez, uzta murrizketa handiak dituzte. Bastidako eremuari dagokionez, oro har, mahastia ongi sendatu da, ez dago mildiu gaixotasunaren hainbesteko kalterik, eta salbuespenekin, errendimenduak ez dira nabarmen txikiagotuko.

Fruituak hartzearen ondorengo egunetako eguraldiak baldintzarik onenak ekarri ditu mildiua garatzeko. Horrela, inoiz baino gehiago presionatu du Arabako Errioxako laborantzan. Mahastizainak, lurraren hezetasunak utzi dienean, ia etengabe tratatzen ibili dira, astebete

baino gutxiagoko tartekak ere utziz tratamenduen artean, eta produktu oso bereziekin gainera. Horrez gain, mantentze lanak ere egin dituzte, inoiz baino gehiagotan, hostoak kentzeko, aireztatzea hobetzeko, eta fitosanitarioak mahats-mordora heltzeko. Horrela, lurzati batzuetan uzta nabarmen txikiagotu bada ere Arabako Errioxan, esfortzuak, oro har, bere saria izan du.

Kanpaina honetan, beraz, intsektuek arazo larri gehiegirik ekarri ez badituzte ere (trips, eltxo berde eta sitsen eraso batzuk), gaixotasun fungikoen ondorioz, mildiu gaixotasunaren ondorioz zehazki, mahastiak aurrekari hurbilak ez dituen egoera batean geratu dira. Horrela, Covid-19arengatik dagoeneko bereziki zaila bazen, urtea are gehiago zaildu da, eta mahastizainek aparteko esfortzua egin behar izan dute laborearen osasuntsu mantentzeko borrokan.

Laborea gaur egun oso aldakorra da, eta astebete eta hiru aste artean falta direla kolore-aldaketa hasteko, mildiuek gehiago okerragotu ditzake gauzak. Bestalde, zenbait eremutan, oidioa agertzen hasia da.

Laburbilduz, gaur egun, esan dezakegu ekaitzak ur eta txingor kantitate handiagoa bota duen tokietan, putzuak sortzeko arrisku handiagoa duten lurzatietan, edo laborantza ekologikoetan (tresna sanitarioak hainbeste behar ez direnetan), mahatsaren gutxiagotzeak nabarmenak izan daitezkeela.

Mildiuen ondorioz mahats unitate asko galdu dira Navaridasen eta Eskuernagan. Hor, gainera, harriabarraren kalteak ere gehitu behar zaizkie. Arabako Errioxako gainerako herrietan kalteak desberdinak izan dira tokiaren arabera. Oionen, Moreda Araban eta Iekoran, esaterako, ekoizpenak, oro har, orekatuak dira, eta mahastiak osasun egoera onean daude. Bestalde, Mañuetan, Lezan, Samaniegon, Eltziegion, Guardian, Lapueblan, Bilarren edo Lantziegon, mildiuk eragin maila desberdina izan du uztan: mahasti batzuk guztiz osasuntsu daude, errendimendu onekin; beste batzuetan, berriz, mordoak txikiagotu dira, mildiurengatik edota harriabarrarengatik.

### **Arabako Txakolinaren egungo egoera**

Arabako Txakolinaren eremuan, azken hiru asteetan, tenperatura altuak izan dira, tarteka ekaitzak izan direla. Hala ere, Arabako Errioxako mendebaldean ez bezala, eskasak izan dira, 10 mm baino txikiagoak. Giroko hezetasuna ez da handiegia izan, elementu meteorologikorik gabe. Horri esker, laborearen arazo handirik gabe garatu da, onddo edo bestelako eragilerik gabe.

Aiaraldeko mahastiaren egoera fenologikoari dagokionez, oro har, mordoak itxi da (L egoera), beraz, ohi baino bi aste inguru lehenago gertatu da.

Mahastiaren osasun egoera bikaina da. Mildiuaren eragina txikia izaten ari da, eta modu egokian tratatzen ari diren oidio foku batzuk agertu dira. Fruitua hartuta, etekinen aurreikuspena ona da, beraz, osasun egoera bikaina ere denez, egoerak berdin jarraitzen badu, eta nahi ez diren fenomeno meteorologikorik ez bada gertatzen, etekin orekatuko eta kalitate bikaineko uzta goiztiarra izango dugu.

Gorabehera garrantzitsurik ez bada gertatzen, hemendik bi astetara egoeraren hurrengo txostena egingo dugu.

Guardia, 2020ko uztailaren 14a.

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA  
NEKAZARITZA SAILA